

Startinnova VIII - Funtsezko jarduerak

Gure negozioak funtsezko jarduerak izango ditu, eta ezinbestekoak izango dira enpresa ondo funtzionatu dezan.

Lehenik eta behin, negozioaren publizitate-iturriak daude; sare sozialak eta gure webgunea negozioaren zati oso garrantzitsua izango dira, eskaintzak, zozketak eta deskontuak argitaratuko baititugu, besteak beste. Produktuen eta lokalaren marketinaz eta sustapenez arduratuko gara, bezeroekin elkarrengaitzeko teknologia erabiliz.

Bestalde, negozioaren barne-funtzionamendua funtsezkoa da, langileek ezbeharrak konpontzeko eta negozioaren barruan sor daitezkeen arazoak eta konponbideak kudeatzeko gaitasuna izango baitute.



Era berean, gure markaren posizionamendua eta bezeroen leialtasuna ez ditugu ahaztu behar. Guretzat, lehiakideengandik bereizteko produktu bikainak eskaintzea eta produktu bakarrak eta desberdinak eskaintzea da oinarria. Modu berean, marka-estrategia erabiltzen dugu gure produktuak besteengandik bereizteko, gure enpresaren izena ezarriz: Gathering & Co.

Beste alde batetik, gure negozioak aurrera egin dezan, hornitzaileekin komunikazio eta koordinazio ezin hobea izan behar dugu.

Inbentarioaren kudeaketa ere oso garrantzitsua da; ezinbestekoa da elikagaien egoeraren eguneroko jarraipena egitea, bezeroari kalitate ezin hobea bermatzen baititugu. Horregatik, gure produktu guztien ekoizpena kontrolatzea eskatzen dugu, baita osasun- eta higiene-neurri guztiak kontrolatzea ere.

Amaitzeko, lokala mantentzea da gure beste funtsezko jardueretako bat. Oso garrantzitsua da lan egingo dugun lekua garbitzea eta ordenatzea, bezeroari begira irudi ona izateko eta bezeroa ahalik eta erosoen egoteko.

